

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2022ko ekaina

Aurkibidea

1. BPGaren hazkundera
2. Gizarte Segurantzako afiliazioa
3. Inflazioa
4. Kanpo merkataritza
5. Enpresen konfiantza
6. Batzordearen aurreikuspenak
7. Hilabeteko laburpena

Eranskina

1. EAEko ekonomia %5,7 hazi zen 2022ko lehen hiruhilekoan.

Enplegua %5,0 gehitu zen denbora berean.

2. Euskadik kotizatzaileen errekorra hautsi zuen maiatzean

Emakumeek gero eta presentzia handiagoa dute lan merkatuan.

3. KPI indizea %7,8ra apaldu zen apirilean.

Azpiko inflazioak gorantz jarraitzen du eta %4,3an kokatu zen urte arteko tasan.

4. EAEko esportazioak inoizko maila gorenean kokatu dira.

2022ko lehen hiruhilekoan, atzerrian saldutako ondasunek 7.390 milioi euroko langa gainditu zuten.

5. Euroaren eremuak hazkunde erritmo altuari eusten dio.

PMI konposatua 54,9 puntukoa izan zen maiatzean, zerbitzuen bultzadari esker.

6. Bruselak hazkunde aurreikuspenak murriztu ditu Errusiaren inbasioaren ondorioz.

Prezioen igoera eta Txinako zero Covid politika dira beste arrazoi batzuk beheranzko berrikuspena egiteko.

7. Hilabeteko laburpena.

Beheranzko zuzenketak argitaratu dira berriro




EAEko ekonomia %5,7 hazi zen 2022ko lehen hiruhilekoan

BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

2022ko 1. HIRUHILEKOA
%5,7




Eustaten kontu ekonomikoek baieztatu dute EA-Eko ekonomia %5,7 hazi zela lehen hiruhilekoan urte arteko tasan neurtuta. Beraz, EAEko ekonomiaren hazkunde erritmoa bizkortu egin da, aldi horretan Ukrainan gerra hasia bazen ere. Eskariari dagokionez, kanpo merkataritzaren garai ona nabarmendu behar da, esportazio errealak %13,6 hazi baitziren, inportazioak %8,9 handitu ziren bitartean. Bi magnitude horien emaitzen ondorioz, hautematen da kanpo saldoak ekarpen positi-

bo handia egin ziola BPGaren hazkundeari. Beste aldetik, barne eskariak tonu moderatua izan zuen, %2,9ko hazkundearekin, hau da, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gutxiago. Izan ere, bai azken kontsumoak bai kapital eraketa gordinak zertxobait leundu zuten beren bultzada, baina berriz ere aldakuntza tasa esanguratsuak erregistratu zituzten (%2,6 eta %3,9, hurrenez hurren).


KONTSUMO PRIBATUA

Urte arteko aldakuntza tasa




KONTSUMO PUBLIKOA

Urte arteko aldakuntza tasa




INBERTSIOA EKIPAMENDUAN

Urte arteko aldakuntza tasa




GAINONTZEKO INBERTSIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA


Urte arteko aldakuntza tasa



Ikuspegi sektorialetik, zerbitzuek bizi duten une gozoa berresten da, pandemiari aurre egiteko mugikortasunari ezarri zitzaizkion murrizketak kendu ondoren. Zehazki, sektore horren balio erantsia %6,0 handitu zen, eta merkataritzaren, ostalaritzaren eta garraioaren atalaren portaera oso azpimarragarria izan zen (%11,0). Era berean, industriak nabarmen hobetu zituen aurreko zifrak, hazkundera % 6,5ean kokatu arte. Azkenik, eraikuntzak bila-kaera apala izan zuen (%1,9), baina aurreko bi aldietako emaitzak gainditu zituen.


INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Ehunekoak



Iturria: Eustat.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Euskadik kotizatzaileen errekorra hautsi zuen maiatzean


Gizarte Segurantzako afiliazioak %2,4ko urte arteko aldakuntza tasa jaso zuen 2022ko maiatzean, aurreko hilekoan baino bi hamarren txikiagoa. Hala ere, hazkunde erritmoa apur bat moteldu bazen ere, horrek ez zuen eragotzi 14 urte geroago afiliatuen gehieneko kopurua gainditzea, 986.000 kotizatzaile baino gehiagorekin. Hala, enpleguaren dinamismoa mantendu egin da, Ukrainako gerraren eta prezioen igoeraren ondoriozko egungo ziurgabetasuna

gorabehera. Aurreko aldietan bezala, emakumeak izan ziren hazkunde horretan gehien parte hartu zutenak (%2,7), gizonak baino bost hamarren gehiago (%2,2) haziz. Horren arrazoia izan zen zerbitzuek berriro ere erregistro nabarmenak eskuratu zituztela (%2,9), murrizketa ekonomikoen amaieraren ondorioz, eta sektore horretan lan egiten dute emakumeek nagusiki. Beste aldetik, eraikuntzak (%1,7) eta industriak (%1,0) hazkunde apalagoak izan zituzten.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA GUZTIRA


Urte arteko aldakuntza tasa

MAIATZEKO AFILIAZIOA
%2,4




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa




AFILIAZIOA INDUSTRIAN

Urte arteko aldakuntza tasa



AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



Jarduera adarren arabera analisiak erakusten du enpleguaren hazkundera orokorra izan zela. Salbuespen nagusiak merkataritza eta nekazaritza izan ziren, eta horiei finantza jarduerak gehitu behar zaizkie, sektoreak bizi duen berregituraketaren ondorioz aldakuntza tasa negatiβοetan jarraitzen baitu. Gorakada gidatu zuten

adarren artean ostalaritza nabarmendu behar-ko litzateke (%11,5), turismo denboraldiaren hasierak mesede handia egin baitio. Era berean, jarduera artistikoei, pandemian zehar asko zigortutako beste jarduera bat izan baitzen, tasarik altuena izan zuten (%14,3), eta zenbait hilabetez bi digituen gainetik erregistratu ziren.

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN LAGUNAK.

	2021eko maiatza	2022eko maiatza	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	963.214	986.436	23.222
Industria manufakturagileak	169.301	171.191	1.889
Merkataritza	134.994	133.970	-1.024
Osasun arloko jarduera	108.077	109.430	1.353
Hezkuntza	77.140	79.871	2.732
Administrazio jarduerak	66.548	68.454	1.906
Ostalaritza	61.270	68.296	7.026
Lanbide jarduerak	57.844	60.064	2.220
Eraikuntza	57.239	58.189	950
Administrazio publikoa	49.958	51.258	1.300
Garraioa	42.382	43.571	1.188
Etxeko langileak	29.219	29.186	-32
Bestelako zerbitzuak	26.040	27.226	1.186
Informazioa eta komunikazioa	24.050	25.082	1.032
Finantza jarduerak	17.148	16.836	-312
Jarduera artistikoak	16.056	18.351	2.295
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	13.208	12.749	-459
Ur horniketa	6.413	6.267	-146
Higiezen jarduerak	4.156	4.272	116
Energia horniketak	1.554	1.553	-1
Erauzketa industriak	544	539	-5
Lurraldez kanpoko erakundeak	73	82	9


Iturria: Gizarte Segurantza.

INFLAZIOA

KPI indizea %7,8ra apaldu zen apirilean

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Inflazioak, martxoan bi zenbakietara hurbildu ondoren, puntu bat eta zazpi hamarren jaitsi zuen urte arteko tasa, energiaren merkatzeari eta erregaientzako diru laguntzari esker. Jaitsiera hori aurreko hilabete batekin alderatuta 1987. urtearen hasieratik izan den moteltze handiena izan da. Hala, goranzko hamahiru hilabeteko joera eten egin da, eta urtarrilean soilik eten zen, KPI lau hamarren moteldu baitzen.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2020	2021	2022ko apirila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	-0,1	3,1	7,8	7,8
Azpiko inflazioa (%79,5)	0,8	1,0	4,3	3,4
- Elikagai landuak (%15,8)	1,7	1,4	7,4	1,2
- Industria ondasunak (%22,7)	0,3	1,0	3,8	0,9
- Zerbitzuak (%41,0)	0,8	0,7	3,3	1,3
Hondar inflazioa (%20,5)	-4,0	12,1	21,9	4,4
- Landu gabeko janariak (%9,3)	4,0	2,6	10,2	0,9
- Energia (%11,2)	-9,4	21,3	31,9	3,5


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT MOTAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak upeleko



Bilakaera hori, batez ere, argiagatik eta gasolinagatik gertatu zen. Alde batetik, elektrizitatearen prezioak moteltzen hasi ziren, gas naturalaren prezioen igoerak gelditu zirelako, ekoizpen eolikoa eta fotovoltaiakoa handitu zelako eta etxeetan gutxiago kontsumitu zelako udaberriaren etorreragatik. Eta, bestetik, gasolinaren prezioa jaitsi egin zen gasolindegietan 20 zentimoko hobariaren ondoren, apirilaren 1ean Espainiako Gobernuaren krisiaren aurkako plana

indarrean sartu zenetik. Hala ere, elikagaien prezioek gero eta aldakuntza tasa handiagoak dituzte (%9,0), nekazaritzan erabiltzen diren osagai jakin batzuen garestitzeak eta hornidura kateetan erregistratutako arazoek eraginda. Era berean, bidaiatzeko murrizketen amaieraren ondorioz, hotelen, kafetegien eta jatetxeen taldea %5,5 garestitu zen, aurreko hilabeteetako igoerak berretsiz, eta etxebizitza eta garraioak, berriz, bi digituen gainetik jarraitzen dute.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2022ko apirila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	7,8	8,3	7,4
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	9,0	10,1	7,4
Edari alkoholodunak eta tabakoa	3,9	3,4	2,2
Jantziak eta oinetakoak	3,0	1,3	2,0
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	19,1	18,8	15,9
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	5,7	5,4	5,0
Osasuna	0,5	1,3	1,1
Garraioa	11,5	12,8	13,0
Komunikazioak	-0,1	-0,1	0,1
Aisia eta kultura	3,1	2,9	3,6
Hezkuntza	1,5	1,2	-0,9
Jatetxeak eta hotelak	5,5	5,8	5,9
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	2,7	3,1	2,4

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.



EAE-KO KANPO MERKATARITZA

EAEko esportazioak inoizko maila gorenean kokatu dira


ESPORTAZIOAK GUZTIRA

Miloi euro

ESPORTAZIOAK. 2022ko

1. HIRUHILEKOA

7.391,3




Ez pandemiaren azken olatuak, ez Errusiak Ukrainan egindako inbasioak, ez zuten lortu EAEko esportazioak ahultzea, urteko lehen hiruhilekoan %21,7 hazi baitziren eta 7.391,3 milioi eurora iritsi baitziren guztira, lehen hiruhileko batean erregistratutako gehieneko zenbatekoa baita. Tasa hori, batez ere, energiaren nahiz lehengai nagusiren baten (burdina eta kobrea, besteak beste) prezioen gorakada handiak bultzatu zuen, eta hala ikusten da esportazioak tonatan aztertzean.

Hain zuzen ere, energiak eurotan %124,8ko igoera harrigarria izan zuen, eta tonatan, berriz, %17,2ra mugatu zen. Metal arrunten kasua askoz nabarmenagoa izan zen, eurotan %35,6ko hazkundea izatetik tonatan %3,3 jaistera igaro baitzen. Ekipamenduko ondasunak ere tonatan murriztu ziren; izan ere, tonatan egindako salmentak, oro har, %1,2 jaitsi ziren, eta esportazio ez-energetikoen kasuan jaitsiera tasa hori % 7,3raino handitu zen.


ESPORTAZIOAK GUZTIRA. EUROAK

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPORTAZIOAK GUZTIRA. TONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPORTAZIOAK HELMUGAREN ARABERA. 2022KO 1. HIRUHILEKOA

Herrialdea	%
Frantzia	%16,1
Alemania	%16,0
AEB	%6,3
Herbehereak	%6,1
Italia	%6,0
Erresuma Batua	%5,7
Portugal	%4,8
Belgika	%4,3
Polonia	%2,5

ESPORTAZIOEN BANAKETA. 2022KO 1. HIRUHILEKOA

Arantzel taldea	%
Ekipamendu ondasunak	%41,2
Garraio materiala	%24,6
Makinak eta aparatuak	%16,7
Ohiko metalak eta manuf.	%25,6
Produktu mine.eta energetikoak	%8,2
Plastikoa eta kautxua	%7,3
Nekazaritzako produktuak	%6,1
Produktu kimikoak	%3,1
Papera	%2,7


Pandemia hasi zenetik, EAEko produktuen merkatu kuota handituz joan da Europako herrialdeetan eta urteko lehen hiruhilekoan saldutako guztiaren %65,1 bildu du eremu horrek. Frantzia eta Alemania nabarmentzen dira gainerakoen gainetik, %16 inguruko merkatu kuota banarekin eta superabit handiko saldoekin. Aitzitik, defizitik handiena Txinaren aldean izan zuen, 334 milioi eurotik gorako merkataritza defizita jaso baitu, Euskadiri produktuak ematen dizkion hirugarren hornitzaileak erosten diena baino bi heren gehiago saltzen baitie EAEko agenteei.

Esportazio adar nagusiei dagokienez, produktu energetiko eta mineralen salmentari esleitutako pisua nabarmendu behar da; izan ere, bi urtez pisua galdu ondoren, laugarren postua berreskuratu zuen, plastikoaren eta kautxuaren salmentaren eta nekazaritzako produktuen aurretik. Beste behin ere, prezioen gorakadak azaltzen du mugimendu hori.

Azkenik, guztizko inportazioak eurotan ere maximoetan kokatu ziren eta 6.410 milioi eurotik gorakoak izan ziren. Horren guztiaren ondorioz, saldo osoan ia 979 milioi euroko superabita lortu zen.

INPORTAZIOAK GUZTIRA


Milioi euro



Iturria: Eustat

SALDOA GUZTIRA

Milioi euro



Euroaren eremuak hazkunde erritmo altuari eutsi dio


Maiatzean, euroguneko PMI indize konposatua 54,9 puntutan kokatu zen, aurreko balioa baino ia puntu bat beherago, baina oraindik hazkunde ekonomikoko eremuan. Alde nabarmena ikusten da indize konposatua osatzen duten bi sektoreen artean; izan ere, zerbitzuek dinamismo handia erakusten jarraitzen dute (56,3), neurri handi batean ekonomia berriro ireki delako, omikron aldaeraren inpaktua gainditu ondoren.

Beste aldetik, manufakturen sektorea beheranzko joera erakusten ari da, Ukrainako gerrak, hornidura eskasiak eta inflazioaren eta kostuen gorakadak baldintzatuta. Hala eta guztiz ere, hazkunde iragartzen duen eremuan jarraitzen du, nahiz eta hazkunde erritmoa apala izan. Bi sektoreetan, etorkizunari buruzko igurikimenak zertxobait okertu dira, baina enpleguaren sorrera sendoa izan da berriro.


PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA

2022KO MAIATZA


54,9




MANUFAKTUREN PMI. EUROGUNEA



ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA




PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




Herrialdeka, Frantziak erakutsi du berriro dinamismo handiena, eta 57,1 puntutan kokatu du indizea, aurreko datua baino apur bat beherago bakarrik. Zerbitzuetako jardueraren gorakadak eta industriaren hedapen apalak justifikatzen dute emaitza on hori.

Bestalde, Alemaniak (54,6) Frantziako mailaren azpitik jarraitu zuen, baina hamarren batzuk hobetu zuen aurreko emaitza, eta aurtengo lehen bost hilabeteetako batez besteko baliotik gertu dago. Manufakturen sektorea hazi egin da apirileko moteltze laburraren ondoren, eta zerbitzuek bilakaera positiboa eta sendoa izan dute.


PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



PMI KONPOSATUA. AEB



PMI KONPOSATUA. JAPONIA




Iturria: Markit

EUOPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPENAK

Bruselak hazkunde aurreikuspenak murriztu ditu Errusiaren inbasioaren ondorioz

EUOPAR BATASUNAREN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023


Europako Batzordeak aurkeztutako udaberriko aurreikuspen berrien arabera, Europar Batasunaren hazkundea %2,7 eta %2,3 izango da 2022an eta 2023an, hurrenez hurren. Europako ekonomiarako aurreikuspenak urte hasieran hedapen sendo eta luzekoak ziren. Halere, Errusiak Ukraina inbaditu izanak areagotu egin ditu energiaren eta lehengaien prezioen igoerak eragindako tentsioa inflazioan, eta horri gehitu behar zaizkio Txinan aplikatutako zero Covid politikak munduko merkataritzan eragindako asaldurak. Horrek guztiak beherantz doitzea ekarri du, eta zuzenketa eremua osatzen duten ia herrialde guztietara hedatu da.

BPG. EUOPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

%	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2021	2022	2023	2022	2023
Europar Batasuna	5,4	2,7	2,3	-1,6	-0,2
Eurogunea	5,4	2,7	2,3	-1,6	-0,1
Alemania	2,9	1,6	2,4	-3,0	-0,7
Belgika	6,2	2,0	1,8	-0,6	-0,1
Espainia	5,1	4,0	3,4	-1,5	-1,0
Frantzia	7,0	3,1	1,8	-0,7	-0,5
Italia	6,6	2,4	1,9	-1,9	-0,4
Herbehereak	5,0	3,3	1,6	0,0	0,0
Portugal	4,9	5,8	2,7	-0,5	-0,3
Irlanda	13,5	5,4	4,4	-0,3	-0,3
Grezia	8,3	3,5	3,1	-1,7	-0,5
Austria	4,5	3,9	1,9	-1,0	0,0

ALEMANIAKO BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

FRANTZIAKO BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

Halaber, energiaren prezioek (jadanik 2021eko lehen hiruhilekotik bultzada hartua baitzuten) gorantz jarraituko dute eta inflazioa maximo historikoetara igoko dute. Izan ere, 2022an Europar Batasuneko inflazioa %6,8 izatea aurreikusten du erakundeak. Eraitza positiboak lan merkatuaren eskutik datoz, eta indartsu jarraitzea espero da. Zehazki, eremuan enplegua %1,2 handituko dela aurreikusten da urte honetarako. Zorraren bilakaera ere positiboa izango da, 2022an %87 ingurukoa eta 2023an %85 ingurukoa izatea aurreikusten baita.

KPI. EUROPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

%	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2021	2022	2023	2022	2023
Europar Batasuna	2,9	6,8	3,2	+4,3	+1,6
Eurogunea	2,6	6,1	2,7	+3,9	+1,3
Alemania	3,2	6,5	3,1	+4,3	+1,4
Belgika	3,2	7,8	1,9	+5,5	+0,3
Espainia	3,0	6,3	1,8	+4,2	+1,1
Frantzia	2,1	4,9	3,1	+2,8	+1,7
Italia	1,9	5,9	2,3	+3,8	+0,9
Herbehereak	2,8	7,4	2,7	+5,2	+1,2
Portugal	0,9	4,4	1,9	+2,7	+0,7
Irlanda	2,4	6,1	3,1	+3,0	+1,6
Grezia	0,6	6,3	1,9	+5,3	+1,5
Austria	2,8	6,0	3,0	+3,5	+1,0

Iturria: Europar Batzordea.





Beheranzko zuzenketak argitaratu dira berriro

Egungo egoera ekonomikoan, dikotomia bat hautematen da argitaratzen diren datuen eta etorkizunari buruzko aurreikuspenen artean. Hala, aurreko eta datorren urtean espero den hazkundearen beheranzko berrikuspenak ezagutarazi dira berriro. Argitaratu den azkenetako bat Europako Batzordeari dagokiona da; izan ere, **euroguneko hazkundea 1,6 puntu murriztu du aurrekoan, eta 0,2 puntu datorren urtean**, espero diren tasak %2,7an eta %2,3an uzteraino, hurrenez hurren. Hona hemen beheranzko berrikuspen hori egiteko arrazoiak: Ukrainako gerraren eragina, prezioen igoera handia, horniduren iritsieraren atzerapena eta Txinak abian jarritako zero Covid politika, herrialdeko hainbat probintzia oso garrantzitsu konfinatu dituenak.

Aurreko guztia gorabehera, datu batzuek gezurtatu egiten dute analisi horretatik ondorioztatzen den ezkortasuna. Adibidez, **euroguneko PMIak, maiatzean, ekonomiaren hazkunde handiarekin bateragarria den balioa lortu zuen**, batez ere, ekonomiak berriro ireki eta herrialdeen arteko mugikortasuna baimendu ondoren zerbitzuek lortutako bultzadari esker. Baina Europako sentimendu ekonomikoa ere baikorra da, Europako Batzordeak berak argitaratutako adierazle horrek erakusten duenez. Are gehiago, euroguneko lau herrialde nagusietan maiatzeko datua apirilekoa baino zertxobait hobea izan zen. Era berean, enpleguari buruzko igurikimenak oso baikorrak dira eta ziurgabetasuneko indizeak behera egin du.

EAEko ekonomiari dagokionez, Eustatek bere aurrerapenean zenbatetsi zituen zifrak baieztatu ditu orain. Hain zuzen ere, **BPGaren hazkundea lehen hiruhilekoan %5,7 izan zen eta enplegarrena, berriz, %5,0**. Bi zifra horiek aurreko bi aldietakoak baino handiagoak dira. Eskaintzaren aldetik, ekonomiaren bi zutabeek, hots, zerbitzuek eta industriak, bizi duten une onabarmentzen da, kasu bietan aldakuntza tasa altuekin. Eskariaren ikuspegitik, nabarmendu beharreko ezaugarria esportazio errealeen bultzada handia da, kanpo saldoak hazkundeari ekarpen esanguratsua egitea erraztu baitute. Aitzitik, kontsumoak eta kapital eraketa gordinak moteldu egin dute hazkunde erritmoa, baina berriz ere aldaketa tasa garrantzitsuak lortu dituzte.

EAEko ekonomiaren une onak jarraipena izan du bigarren hiruhilekoan ere, Gizarte Segurantzako afiliazioaren datuetan ikus daitekeenez. Zehazki, **maiatzean erregistratu zen orain arteko afiliazio kopururik handiena, 986.400 afiliazio baino gehiagorekin**. Urte arteko aldakuntza tasa %2,4 izan zen, aurreko hilekoa baino hamarren pare bat txikiagoa. Kopuru horretatik, %47,9 emakumeei egokitu zitzaion, eta emakumeek ere beren balio historiko handiena eskuratu zuten. Aurrekoari lotuta, Lanbideren bulegoetan erregistratutako langabezia %7,6 murriztu zen maiatzean, eta guztira 113.400 pertsona zeuden, 2019ko hilabete berean erregistratutakoren oso antzeko kopurua, pandemia hasi aurreko azken erreferentzia ordukoa baita. Beraz, birusaren agerpenak sortutako langabezia guztia zuzendu da jadanik.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2021				2022
			I	II	III	IV	I
BPG	-9,9	5,6	-2,9	18,6	3,9	4,7	5,7
Barneko azken kontsumoa	-8,9	4,8	-2,5	18,1	2,4	2,7	2,6
Familien kontsumoa	-12,4	5,3	-3,7	22,6	2,1	3,0	3,1
Administrazioaren kontsumoa	3,8	3,0	1,6	5,2	3,5	1,7	0,6
Kapital eraketa gordina	-11,7	6,3	-1,3	21,4	3,7	4,3	3,9
Barne eskaria	-9,6	5,1	-2,2	18,9	2,7	3,1	2,9
Esportazioak	-16,1	11,8	-2,4	30,1	12,5	11,1	13,6
Inportazioak	-15,4	10,8	-1,4	29,8	10,2	8,1	8,9
Lehen arloa	-15,0	1,8	-7,1	7,8	4,6	2,6	-1,8
Industria eta energia	-11,2	8,5	-1,1	30,2	5,5	4,3	6,5
Eraikuntza	-8,2	2,4	-2,4	11,5	1,3	0,5	1,9
Zerbitzuak	-9,0	5,0	-3,5	15,5	4,0	5,4	6,0
Balio erantsi gordina	-9,5	5,6	-2,9	18,4	4,2	4,8	5,8
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-13,6	5,3	-3,0	20,4	1,9	3,7	3,9
Enplegua	-7,7	5,5	-2,1	16,6	4,3	4,6	5,0

MARTXOKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2022				2022	2023
	I	II	III	IV		
BPG	5,6	4,0	4,1	4,1	4,5	4,1
Barneko azken kontsumoa	5,2	4,2	4,2	4,1	4,4	3,7
Familien kontsumoa	5,9	4,4	4,6	4,3	4,8	4,0
Administrazioaren kontsumoa	2,9	3,5	3,0	3,5	3,2	2,6
Kapital eraketa gordina	5,8	5,0	4,6	4,4	5,0	4,3
Barne eskariaren ekarpena	5,6	4,6	4,5	4,4	4,8	3,9
Kanpo eskariaren ekarpena	0,0	-0,6	-0,4	-0,3	-0,3	0,2
Lehen arloa	7,6	-7,5	-6,2	1,6	-1,4	-5,5
Industria	4,7	3,5	3,8	3,7	3,9	4,2
Eraikuntza	2,8	3,4	3,5	4,0	3,4	4,0
Zerbitzuak	6,1	4,3	4,4	4,4	4,8	4,2
Balio erantsi gordina	5,6	4,0	4,1	4,2	4,4	4,1
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	5,9	4,2	4,1	4,0	4,6	3,9
Lanaldi osoko lanpostuak	4,5	2,6	2,0	2,1	2,8	1,8
Landunak (BJA)	3,1	1,5	1,1	1,4	1,8	0,8

EAEKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023		2022	2023
Laboral kutxa	6,3	—	Hispalink (BEGren aldak.)	4,3	2,7
Confebask	5,9	—	BBVA	3,3	2,6
CEPREDE	4,7	2,8			

ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2021				2022
			I	II	III	IV	I
BPG	-10,8	5,1	-4,1	17,8	3,5	5,5	6,4
Kontsumo pribatua	-12,2	4,7	-6,6	23,0	1,8	4,2	3,1
Kontsumo publikoa	3,3	3,1	4,4	4,1	3,5	0,4	0,8
Kapital finkoaren eraketa gordina	-9,5	4,3	-3,3	20,6	0,3	2,8	6,8
- Aktibo finko materialak	-10,5	4,1	-3,6	23,4	-0,7	1,3	5,7
- Eraikuntzan	-9,6	-2,8	-10,5	11,2	-5,5	-3,9	1,3
- Ekipamendu ondasunetan	-12,9	16,0	8,1	49,5	7,0	9,5	12,3
- Jabetza intelektualaren produktuak	-4,3	5,5	-1,4	8,5	5,4	9,9	12,1
Nazio eskaria (ekarpena)	-8,6	4,7	-3,0	17,7	2,4	3,8	3,3
Esportazioak	-20,1	14,7	-6,7	40,4	16,1	17,9	20,8
Inportazioak	-15,2	13,9	-3,9	40,6	13,2	13,1	12,1

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2022			2023	
	2022	2023		2022	2023
AFI	4,3	3,0	Mapfre Economics	4,2	3,0
BBVA	4,1	3,3	Oxford Economics	4,5	3,6
CaixaBank	4,2	3,8	Repsol	4,0	2,5
Merkataritza ganbera	4,3	2,8	Santander	4,3	2,8
CEEM-URJC	4,3	3,0	Metyis	3,7	2,5
CEPREDE-UAM	4,9	2,6	Universidad Loyola Andalucía	3,8	1,9
CEOE	4,2	3,2	Batez bestekoa	4,3	3,0
Equipo Económico (Ee)	4,4	3,5	Gobernua (2022-04)	4,3	3,5
EthiFinance Ratings	4,7	3,5	Espainiako Bankua (2022-04)	4,5	2,9
FUNCAS	4,2	3,3	Europar Batzordea (2022-05)	4,0	3,4
ICAE-UCM	4,3	3,3	NDF (2022-04)	4,8	3,3
IEE	3,9	2,8	Consensus Forecast (2022-05)	4,4	3,0
Intermoney	4,7	3,6			

Iturria: Espainiako Gobernua, AFI: Analistas Financieros Internacionales, Repsol, NDF: Nazioarteko diru funtsa, BBVA, CaixaBank, CEOE: Confederación Española de Organizaciones Empresariales, Comisión Europea, FUNCAS, Espainiako Bankua, CEPREDE, Consensus Forecast, Merkataritza ganbera, CEEM-URJC, Equipo Económico (Ee), EthiFinance Ratings, ICAE-UCM, Instituto de Estudios Económicos (IEE), Intermoney, Mapfre Economics, Oxford Economics, Santander, Universidad Loyola Andalucía eta Metyis.

ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2021				2022
			I	II	III	IV	I
AEB	-3,4	5,7	0,5	12,2	4,9	5,5	3,5
Txina	2,0	8,1	18,3	7,9	4,9	4,0	4,8
Japonia	-4,5	1,6	-1,7	7,4	1,2	0,4	0,5
Kanada	-4,9	4,6	0,2	11,7	3,8	3,2	2,9
Europar Batasuna	-5,9	5,3	-0,9	14,0	4,2	4,9	5,2
Eurogunea	-6,4	5,4	-0,9	14,6	4,1	4,7	5,1
Alemania	-4,6	2,9	-2,8	10,4	2,9	1,8	3,8
Frantzia	-7,9	7,0	1,8	19,2	3,0	4,9	4,5
Erresuma Batua	-9,3	7,4	-5,0	24,5	6,9	6,6	8,7
Italia	-9,0	6,6	0,0	17,5	4,0	6,4	6,2
Herbehereak	-3,8	5,0	-2,0	11,0	5,3	6,4	7,0

Iturria: Eurostat eta ELGE.

CONSENSUS FORECAST. 2022KO MAIATZA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2022	2023	2022	2023	2022	2023
AEB	2,8	2,1	7,2	3,3	3,6	3,6
Japonia	2,0	1,9	1,7	1,1	2,7	2,6
Kanada	4,1	2,6	5,7	2,9	5,4	5,4
Europar Batasuna	2,8	2,3	6,6	2,9	—	—
Eurogunea	2,7	2,2	6,8	2,6	7,0	6,8
Alemania	2,0	2,4	6,6	3,0	5,0	4,9
Frantzia	2,9	1,7	4,5	2,3	7,4	7,3
Erresuma Batua	3,8	1,0	7,8	4,3	4,0	4,2
Italia	2,5	1,8	6,2	2,1	8,8	8,7
Espainia	4,4	3,0	7,2	2,1	—	—
Herbehereak	3,0	1,7	8,0	2,9	—	—

Iturria: Consensus Forecast.